

ZELULARI BURUZKO KONTAKIZUNA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Zelula hautatzea	Zuzen adierazten ditu zer zelula mota hautatu den eta zer jatorri duen, zer kokaleku duen ehunean, organoan edo sisteman, zer lotura duen bere forma edo funtzioarekin eta zer toki hartzen duen materia biziaren antolakuntza-mailetan.	Zelula mota adierazi, eta zuzen identifikatzen du zer kokaleku duen ehunean, organoan edo sisteman, bai, halaber, zer lotura duen bere forma edo funtzioarekin, baina ez dio aipamenik egiten antolakuntza-mailetan hartzen duen tokiari.	Zelula mota adierazten du, baina ez du zuzen identifikatzen zelulak ehunean, organoan edo sisteman duen kokalekua, eta, gainera, ez du aipatzen zer lotura duen bere forma edo funtzioarekin, ez zer toki hartzen duen antolakuntza-mailetan.	Ez du argi adierazten hautatutako zelula mota, ez du kokatzen ehun, organo edo sistema batean eta, gainera, ez ditu aipatzen zelularen forma eta funtzioa, ezta antolakuntza-mailetan hartzen duen tokia ere.
Zelula-egitura	Zuzen identifikatu eta azaltzen ditu zelula-organuluak eta haien funtzioa, zelula-eredu batean.	Zelula-organulu gehienak identifikatu eta haien funtzioa azaltzen du, zelula-eredu batean.	Partzialki identifikatzen ditu zelula-organulu batzuk zelula-eredu batean, haien funtzioa azaldu gabe.	Ez ditu zuzen identifikatzen eta azaltzen ez zelula-organuluak ez haien funtzioa, zelula-eredu batean.
Mikroskopia eta zelula-laginak	Mikroskopia identifikatzen du zelulak ikusteko tresna gisa, eta zuzen azaltzen ditu zelula-laginak prestatzeko materiala eta prozesuak.	Mikroskopia identifikatzen du zelulak ikusteko tresna gisa, eta gaingiroki aipatzen ditu zelula-laginak prestatzeko material eta prozesuak.	Mikroskopia identifikatzen du zelulak ikusteko tresna gisa, baina ez ditu azaltzen ez aipatzen zelula-laginak prestatzeko material eta prozesuak.	Ez du identifikatzen ez azaltzen nola funtzionatzen duen mikroskopia, eta ez ditu aipatzen zelula-laginak prestatzeko material eta prozesuak.
Zelularen garrantzia	Argi azaltzen du zelulak biologian duen garrantzia, eta egokiro laburbiltzen du zelula-teoria garatu duen jarduera zientifikoa.	Zelulak biologian duen garrantzia aipatzen du, baita zelula-teoriaren protagonistetako batzuk ere, ordenarik gabe.	Gaingiroki aipatzen du zelulak biologian duen garrantzia eta zelula-teoria existitzen dela.	Ez du aipatzen zelulak biologian duen garrantzia ezta zelula-teoria garatu duen jarduera zientifikoa ere.



